

Idazlea eta ilustratzailea

# Yolanda Larreategi eta Amaia Nolla: "Gurasook gure hizkera zaindu beharko genuke"



Markina-Xemein

Gizartea Kultura

Konpliztaterik ez da falta umetatik gelakide eta lagun diren Larreategi eta Nollaren artean. Liburu bat kaleratu dute orain, lankidetzan ('Gurasook tokatzen zaizkit'). Esperientzia aberasgarria izan da biezat.



Ezkerrean Yolanda Larreategi, eta eskuman Amaia Nolla, liburua eskuartearen dutela.

2021/07/13

Eider Mugartegi

**Yolanda Larreategi** eta **Amaia Nolla** tandem berezia osatu dute. Umetatik elkar ezagutzen duten lagunek bat egin eta bien artean haurtzaroko liburu bat argitaratu dute Erein argitaletxeagaz batera. Larreategi tiradera batean gordeta zeukan testua, eta argitaletxeren bati interesatuz gero, argitaratzeko prest zegoen. Baina ez zuen testu soil bat aurkeztu nahi. Jada buruan zituen **personaia irudiek**in batera joatea nahi zuen. Eta Amaia Nollagaz gogoratu zen, eskolako lagunaz. «Dena gorpila zen haren etxean, eta autoak eta motorrak irudikatzen zituen, baita karrikaturak ere, eta horretan ez bada aritu ere, beti eduki du esku ona», dio Larreategi.

Ustekabeko deia izan zen, baina Nolla proposamena onartu eta bere lagunari abentura berri horretan laguntzea erabaki zuen. Nahiz eta esperientzia faltagatik arazo bat edo beste eduki, oso modu eraginkorrean konpondu dituzte, eta gurasoen eta seme-alaben artean onarpen handia edukitzean ari da Gurasook tokatzen zaizkit liburua.

Nollari WhatsAppetik Amaia *proposamen bat egingo dizut, nahi baduzu pikutara bidali ahal nauzu, baina testu bat daukat, eta zuk irudiak egitea nahiko nuke* mezua bialdu ziola gogoratu du Larreategi. Eta harriduta geratu zen Nolla. «Etxean eta etxerako egin dit lanak, baina sekula ere ez kalera begira. Hala ere, proposamenak zer edo zer piztu zidan. Garrantzitsua izan da **Yolandaren bultzada**. Nik beste lanbide bat daukat, beste zeregin batzuk, eta haren bultzadatik barik ez nintzen marrazten hasiko. Astia atera behar da honetarako», dio.

**Umeen bizipen eta sentipenak** islatu nahi izan ditu Larreategi liburua bidez, haien ikuspegitik abiatuta. Gurasook bananduta dituzten haur batzuk dira liburuko protagonistak. «Ate ostetik entzuten du batek gurasook asteburu horretan umeak tokatzen zaizkiola esaten. Eta, alde batetik, pentsatzen du, agian, ez dituztela maite horrenbeste, eta bestetik, ez dituztela salduko beste plan bat egiteagatik. Alde gazi-gozoa».

Larreategi, irakaslea izanik, baditu gurasook banatuta dituzten ikasleak, eta egoera horretan ikusi ditu batzuetan: «Ez dakite non dituzten gauzak ere, aitaren etxean edo amarenean. Ez dut inor errudun sentitzerik nahi, baina umeak hori jasaten ari dira, egunero ikusten dugu hori eskolan. Agian, gurasook gure hizkera zaindu beharko genuke apurtxo bat, zelan esaten ditugun gauzak pentsatu. Ez dira fede txarrez esaten, baina horrelako hitzek min eman dezakete».

Bere bizitzako beste **pasarte batzuk** ere barneratu ditu Larreategi istorioan. «Ate atzetik entzuten ari den ume horrek gaixotasun bat daukan biki bat dauka. Behin Gurutzetako ospitalean nengoela nire seme-alabekin, neurologian zegoen ume bat ikusi nuen, mikrocefalia zeukana, eta oso gogorra iruditu zitzaidan, barrua mugiarazi zidan».

Bien artean erabaki dute istorio horretako personaia itxura, eta biek bat egiten zutela azpimarratu du idazleak. «Testua ulertu zuen nik aditzen dudan moduan», dio Larreategi.

**Patxi Puzker** izeneko beste pertsonaia bat ere barneratu du, zapaltzailea. «Bera ere zer edo zergatik da horrelakoa, badauka bere motxila». Bikien **amama** ere garrantzitsua da liburuan. «Harreman estu eta berezia daukate beragaz». **Miren** da beste protagonistetako bat. «Horrek ere gurasook bananduta ditu, eta etxerik etxe doa batera eta bestera».

Oinarria gurasoen banaketak eragindako sentipenak badira ere, umei eragiten dien beste hainbat gai ere barneratu ditu Larreategi. «Pentsatu arazi eragiten duen liburua da. Guraso zein umeak sentituko dira identifikatuta».

**Irudiak**. Irudiek eskuz egindako marrazkien goxotasuna daukate. Egongelako mahaian irudikatu ditu Nolla flexo baten azpian. Larreategi, ordea, ezkaratzeko mahaia izan zuen lantoki. Bien artean erabaki dute istorio horretako personaia itxura, eta biek bat egiten zutela azpimarratu du idazleak. «Testua ulertu zuen nik aditzen dudan moduan, agian, oso lagun onak garelako eta gauza askotan bat egiten dugulako, eta **personaia** nik ikusten nituen modura ikusten zituen».

**Pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak** zehaztu eta ekinean hasi zen Nolla. Aitortu duenez, koloreagaz galduta ibili da. «Hiru dimentsiotako irudiak egiten nituen, baina koloreagaz izorratu egiten nituen. Horregaz nahikoa desesperatuta ibili naiz, ez neukan teknikarik eta». Baina ekin eta ekin, lortu zuten emaitza.

Nolla: «Umeak gozoak dira, eta kolorea ikusten dute, orduan umeen begietatik ikusita, irudiek ere horrelakoak izan behar zuten»

Konfinamenduak zailago egin die elkarlana, baina telefonoz moldatu dira, eta digitalizatzeko momentua heldu denean batu dira. «Nire eskanerragaz hasi ginen, baina ikusten genuen kalitatea galtzen zuela», azaldu du Larreategi. «Eskuzko koloreak direnez, pigmentua galtzen dute», argitu du Nolla. Oztopo handia izan zen hori. «Ukituak ematen hasi ginen, baina ez zen gauza bera. Digitalizatuta ondo geratuko zela uste bagenuen ere, faltsua gelditzen zen, oso zatarrak», oroitu du Larreategi. «Beste margo batzuk erosi behar izan nituen, lapitzak, bestela pigmentu dena jango zuen digitalizazioak. Hala ere, gauza batzuek akurelagaz mantendu ditut», zehaztu du Nolla.

**Gozoak**. Irudi gozoak izan behar zirela pentsatu zuten, «testuak baditu-eta bere mingots zatiak, bizitzaren modura», dio Larreategi. «Umeak gozoak dira, eta kolorea ikusten dute, orduan umeen begietatik ikusita, irudiek ere horrelakoak izan behar zuten», azaldu du Nolla. «Euren erakoak izan behar zuten, identifikatuta sentiarazten dituztenak», gaineratu du Larreategi.

Liburuaren esentzia Larreategi eta Nollaren arteko elkarlanean egon da. «Argitaletxera bidali genuenerako, dena eginda genuen. Pastela labean sartuta zegoen jada», zehaztu du Nolla.

**Argitaletxeagaz berbetan**. Testua irudi bigaz bidali zuen Larreategi Ereiner, ilustratzailearen proposamena ere bazuela esanez, baina beldur ziren testua onartu eta irudiak baztertuko ote zituzten. Baina baiezkoa jaso zuten argitaletxetik; ados zeuden irudiek ere. «Elkarregaz argitaratzeko geratu ginen, eta testua onartzea eta ilustrazioak ez onartzea ez zen aukera bat», azaldu du Larreategi. Nolla, berriz, argitaletxeak irudiei ezetz esanez gero, lagunak aukera bat galdu zezakeela ikusten zuen, eta ez zuen hori nahi. «Berak bere bidea jarraitu behar zuen. Ereinek nire ilustrazioak onartu ez balitu, ulergarria izango litzateke niretzat, baina ez nuen nahi Yolanda aukera hori galtzerik».

Liburu horren esentzia, baina, elkarlan horretan egon da. «Argitaletxera bidali genuenerako, dena eginda genuen. Pastela labean sartuta zegoen jada», zehaztu du Nolla. Gainera, euren egin nahi zuten aukeraketa guztia. «Azalean zein irudi joango zen ere guk aukeratu nahi genuen». Eta horrela egiten utzi diete. «**Lan polita** izan da, oso pozik geratu naiz. Nire saltsan ibili naiz. Beti geratu izan zait zerbait egiteko gogoia, eta lan honek nire zaletasuna berrartzea ekarri dit», azpimarratu du ilustratzaileak.

Lea-Artibai eta Mutrikuko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa dugu. **Egin zaitez HITZakide!** Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

**Egin HITZakide**

## Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza Comment Policy

Iruzkinek euskaraz eta errespetuz egin behar dira



0 Iruzkina Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza Disqus' Privacy Policy

1 Saioa hasi

Gomendatu Tweet Partekatu

Onenetik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN




Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Do Not Sell My Data

DISQUS

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko ZERBITZU GIDA  
**geureanbai.eus**

### Azken 3 egunetako irakurrienak

#### 1 Azken orduetan 12 kasu erregistratu dituzte Lea-Artibain

2021/07/13

Lea-Artibai eta Mutriku

#### 2 Markina-Xemeingo Txosna Batzordeak bost eguneko egitaraua dakar

2021/07/13

Markina-Xemein

#### 3 Mikel Iriondok bi domina lortu ditu Udako Bizkaiko Igeriketa Txapelketan

2021/07/13

Ondarroa







### Hilabeteko albiste garrantzitsuenen buletina jaso nahi?

Buletina hileko azken barikuetan bidaltzen da, eta Lea-Artibai eta Mutrikuko hilabeteko berri nagusiak biltzen ditu.

Pribatutasun Politika irakurri eta onartzen dut.

Harpidetu

94-684 44 36

lea-artibai@hitza.eus

Arretxinaga etorbidea, 1 - 48270 Markina-Xemein

Nor gara



[Argitalpen politika](#)

[Aniztasun politika](#)

[Pribatutasun politika](#)

[Cookieak](#)

Babesleak:

